Erref. kodea: LAF-216-181

Izenburua: Eragiletza sozio-kulturaleko dokumentuak: *Eskualzaleen Biltzarra*, ipuin lehiaketa, 1974

Lettre

I phuin 30in gehiagoka

ESKUALZARREN_BILTZARRA

11 Rue Jacques Lafitte

64.100 – Bayonne



Iphuin Sarikeka 74
et suiva

Irina 11

Bakzetu 8

Beharrak chanuk 15

Zaharrak berri 14

Erbsiraken irrin 13

Guillamon 16

Xintxi 13

Xintxi (Gerla ephela)	13		5
Guillamu Bazkazan (Work hil ziren)	16	–	1
Beharrak aharrak (Arnegin ...)	14	–	2
Ortziraletan irriz (Hirie laido)	14	–	3
Baketxu	9		7
Ebaslea ebatsia (gaizki boldua .. IRINA)	11		6
Xaharrak berri (Ama-alabak ..)	14	–	4

Jean Pierre Iratzeta

Gerla ephela

Xintxi elatzai = Xintximari

IRATCHET Jean Pierre

BUGLOSE

40.990 St Paul lès Dax

1

G E R L A E P H E L A

Gure aitatxik haimbertze arrana eta guk ez ikasi zoin urtez gertatu ziren aipatu nahi ditudanak.Nik dakitana da,Eskual-Herrian ere,bideak ari zituztela edertzen eta largatzen "goundrouna" jinen zelakoan eta bi errotako zaldi-karrosa berri batzuek bazutela arrakasta,arinak zirekakotz.

Hazilaren edo azaroaren 25-a,Santa Katalina,Heletako feriak.Feria horietan sal-erosten dira Heletako plazaren bete izaiten diren zaldi,behor,mando,pottoka, eta ere,aitor ditzagun,astoak.Ez dakitan zoin urtez beraz,Santa Katalinako ferietan,baziren Heletan tratu egile frango.Gure aitatxik erraiten zuen bazirela bi tratu egile mota:tratulariak,muslariak bezain abilki artzen direnak beren irabaziaren egiten,bainan,kartak agerian,jukutriarik egin gabe.TRATULANTAK,hatsa gezurra dutenak,bertzetaz,Jainkoaz ala jazko haizeaz berdin axola guti dutenak.

TRIXTAN BELTZA Ortzaize aldekoa zen,JAKES HAUNDI Iholdi inguruetakoa.Ez dautzuet segur erranen xuxen nungoak ziren bi tratulant horiek,ez baitut horien herritarreri ahalgerik eman nahi.Ez omen zuten nehor urrikari,norbeiti ahotik ogia kendu zutela jakinik ere.Azkenean,aipatzen dugun Santa Katalina hartan,elgar jaten ere hasi ziren.Biak,gizon azkarrak,beren xamar haundiekin,makilak eskuetan, han zabiltzan harat eta hunat,debrua bezala,nun nor enganatuko zuten oraino.Ihizia bakantzen hasia ote zitzaioten ? Elgar kurutzatu zuten batez,Trixtanek erran zion Jakesi :

"Ikusi duka,to,zaldietan,mantenu ttipiko zerbeit,azpian ibiltzeko ala karrosako berdin hezia dena ?

——Ez!ez! Norendako duk ?

— Ortzaize erretorarendako;behar dena pagatuko dik,bainan,belhar guti baitu, mantenu ttipikoa nahi likek eta azpian ibiltzeko maltxoa.....eta karrosako zainarta.

— Nik badiat ba bat,bainan enetako diat,ingles gazte bat,kariosko pagatua, bainan pagatuko nian gehiago ere,hain zatak ikusi orduko gustatu."

Tratulant joko.Ez berehala eta ez aise ,bainan bildu zuen halere Trixtanek Jakes bere ingles gaztearen saltzerat;haatik,zer preziotan!!!Ordainez Jakesek frango merke erosi zion Trixtani behor bat sei ilhabete ernari eta bere I6 ilhabeteko azken umearekin zena.Eta gure bi tratulantak etxerat joan ziren beharbada egun hartako beren tratuez kontent.

Ortzaizen ziren Ortzaizen eta Ortzaizeko karrika nagusian,zinak,minak eta zinemak Santa Katalina biharamunean eta ondoko egunetan.Muñika,putar eta jauzi jaun erretoraren zaldi berriak bazter guziak nahasi.Segur zainarta zen.Erran behar da ez zela ez basa ere,bil errexa zen;bainan ez zen hesirik ez harrosurik harek jauzian pasatzen ez zuenik.Mantenu ttipikoa zen beharbada,bainan guti aski bazuen guti hura ona behar zuken.Hasteko baratzekariak izigarri maite zituen;ez zaizkona apezen kontra errabiatua zen errientari aza-buru ondar guziak jan,pastenarre eta porru buztanak moztu,errientsari berriz,ez baitzen hobe,zituen hiru lore arrado-enak ausikitzean, heien lore-untziak aurtiki eta hautsi.Biharamunean berean, jandarmak etxean zituen jaun erretor gaizoak ,bere onetan,zaldiak egin desmasiak pagatzeko eta zaldi hura gehiago ez uzteko laxoan.Nehorek ez zuen gehiago ikusi ingles zaldi famatua,Trixtan eta jaun erretoraren antekorik ere ez zen deus jakin.

Egiari egin dezagun bide,guk orai;zaldi hori Bithirinatik heldu zen. Merke erosia zuen Jakes Haundik jakinean bere ñapurkeriaren gatik saldua zela eta erranik ez zuela nehorek ere atxikitzen ahal holako zaldia,ez zela merke baizik saltzen ahal holako horiek guziak Espainiarat "xurizo" egiteko igortzen dituzten kontrabandixt zonbeiti baizik.

Abendoaren zortzia.Nabarrenkoseko feriatik heldu Jakes Haundi bere zaldi-karrosa ederrean;ilhuntxea;Landibarreko zolarat heltzen ari;hor,betbetan, gizon batek jauzi egiten du sasu-pe batetarik bidearen erdirat,zaldia geldiarazten du eta kraixtutik hartzen:

"Ken hadi gero hortik!!.....Arriiii!!!Hooo potto!!! iiiii!!!garbitzen hut ez bahiz hortik kentzen.....bide egizak!!Nor hiz hi ??Alta kenduko hiz ba hortik"

Ehotua jausten da Jakes Haundi karrosatik,bainan bi zangoak lurrean

GERLA EPHELA (segida)

2

finkatu ditueneko,gibeletik bertze norbeitek bi esku alimalekin lepotik hartu eta zintzurra,urkatzeko indarrarekin,tinkatzen dio;kraixtuak utzirik,aintzinekoa hasten zaio,jo zak eta emak,pasoka eta sudurrekoka;lurrerat doatzi hiruak,biak Jakesen gainerat,borroka marruskatzen dute,pampaka guritzen,mamitzen.Bide bazterrean uzten dute bi gogoeta egin ditzan eta moltsa falta duela ohartu arte.Ondoko egun batez, Iholdiko ostatu batean,etxek'andereak Jakes Haundiri:

"Errazu,Jakes,eta moltsa bat bada hemen bi gizonek zuretako utzia Nabarrenkoseko feria aratsean,zuk prestatua ziniotela eta zuri erraiteko hartze zutena hartu dutela,gaineratekoa hor duzula eta barkatzeko heien ausartzia"

Hnm ! Iholdin ,beraz Irissarriko bidean beharbada!?!? 'rriak!!Moltsari behatu eta Jakesek ez zuen xehetasunik galdegin,bainan bigarren mantxa baten galdea sortu zitzaion gogo-bihotzetan.Ez zakien alta lehena ez zela oraino akabatua.

Santa Katalinetan,bere umearekin erosi behorra Mehainerat saldua zuen Jakes Haundik,Donapaleuko bakezko jujaren etxetiar bati.Uztail ondarrean,uxerra jin zitzaion,behorrak bietan ilhor egin zuela eta maaxelak erran zuela behor harek ez zuela egundaino umerik ukan eta ez ukanen ere,konduak berriz egin behar zirela.

Berriz ere,egin dezagun egiari bide:Gahardutik heldu zen behorra,jadanik lau aldiz ilhor egina zuena.Trixtanek,haragitako baizik ez zela on eta hala saltzeko ere mehe zela,bazka xuhur,merke bildua zuen eta Heletan berean [illegible] erosi behoka batekin saldua,ama-umeak zirela

Agorrilaren I6-a.Heletako feriak;Bezperan pesta puska bat egina,goizetik kaldan zen Trixtan Beltza.Heletako pestak zirela eta zombeit pint'erdi edanik, musean ere arizanik,ilhuna zuen etxerat abiatu zelarik,erosia zuen zaldi bat karrosa gibelean estekaturik.Erdi lo joan zen Irissarriraino,zaldiaren gelditzeak iratzartu zuen.Ohi zuten bezala ostatuaren aintzinean gelditua zen.Ostatuan sartu orduko bazuen adixkide eta denen artetik adixkidena,ez duzue sinetsiko,Jakes Haundi,besotik hartu eta bere ondoan jarrarazi zuena.Ostatu hortan geldituz, Trixtanek mantxa eman zion Jakesi.Etxerat heldu zen ba noizbeit Trixtan,makurrik eta zampakorik gabe,hortan irabazdun zen,bainan karrosa gibelean estekatua zen zaldi araba pollitaren barrukuan sartzerat joan zelarik,barrukuko argian agertu zitzaion oraino zen baino itsusiago asto zingila zahar bat,dena ere okerra.

.....eta nik hemen eta beraz hortan gelditu behar §§?

Xintxi eta Mari-Xintximari

'Guillaume Bazkezak'
Jean Pierre Fratxeta

Nork hil zien "kortxet" ?

Guillamu BAZKAZAN

abbé J.P. IRATCHET

Bugalose

40.990 St Paul-lès Dax

NORK HIL ZIEN " KORTXET " ???????

Emaztek emana zioten " KORTXET " izen hori,batzuitan eskiak zalhuxegi eta ausartaxko omen zitielakotz,bainan gizon goxua zen.Erdia lurrian zen etxe zahar batian bizi zen luma biltze,saski saltze,untzi zahar antolatze eta holako lan batzuitarik.Nehorek ez zakien xuxen nun eta noiz sortia zen.Pint'erdi zonbeit edaten zitiela,bainan edan eta ere ez zen gaixtua ; edan eta bihotza zitzaion eritzen eta ordian,bakarrik bizitziak gogua ilhuntzen zion.Erraiten zuten ba gauaz zalhu zela Kortxet,bainan zer ez dute erraiten jendek?

Gaixo Kortxet !! Igande goiz batez,Ibarla-Bordako onduan hatxeman zuten,erreka batian,kanibet ukaldika hila.

IBARLA-BORDA !! Hura zen hura etxe joria !! Bazela han familia !! Auzo hurbilik gabe zen Ibarla-Borda,oihan izkin batian,bide-kurutze bati hurbil. Nehorek ez zakien,xuxen erraiteko,zonbat ziren Ibarla-Bordan,han baitzabilan juan jinka anhitz jende eta sasoin arau ardura baitzen bordaren bete baino gehiago ardi.Bazen lehenik ama zaharra:Maria-Motela.Nehorek ez zion egundaino senharrik ezagutu,alta bada,jenden ezagutian,bazitien hamasei haur bederen bizi, denak segur ez baitzuten sinhetsiko bat ere bazela Izpiritu Saindiaren ganik. Hamar bazitien jadanik kanporat ezkondiak;Ibarla-Bordan berian bazitien biga etxerat ezkondiak,bertze biga ezkonduxiak eta bi nexka gaztenak,segur,heiek ere, ezkontzekotan zirenak.Krixtobal eta Maria-Zirtzil ziren etxerat,Ibarla-Bordarat ezkondiak.Krixtobal Mikelarekin ezkondia zen eta bazituzten sei haur,zazpigarrena bidian.Ibarla-Bordarat jitian,Mikelak berekin jinarazi zien bere anaia gaztexago bat:Ttokero,eta noizbeit,Ttokero ere Ibarla-Bordarat ezkondu zen Katalin-Tzar erraiten zioten emazte batekin;heiek ere laugarren haurra bidian zuten; Trifon delako bat ere bazabilan ardura Ibarla-Bordan Katalin-Tzaren ondotik.Trifon eta Katalin-Tzar Krixtobal eta Maria-Zirtzil bezela ziren, amaren partetik anai-arrebak eta aitaren partetik beharbada kusi,bainan segurrago Maria-Motelaren arabera,auzo edo adixkide.Bixtan da Trifon Maria-Zirtzilekin ezkondu zela eta Ibarla-Bordan bizitzeko.Ez dauzkitziet segurraz ere Ibarla-Bordan bizi ziren guzien izenak eman,aipatien eta ezagutienenak baizik,etxe horren barneko,jakintsunek erraiten duten bezela " fisolamia " ikus dezazien.

Igande goiz hartan beraz,ihiztari batzuik hatxeman zuten Kortxet dohakabia hila,kolpe gaixto batzu ukanik.Egin behar den bezela,ihiztari bat juan zen berri hitsaren auzapezari heltzerat eta bertziak hilaren onduan egon ziren.Ohartu ziren Ibarla-Bordatik heldu zen bidexka batian zer nahi odol xorta bazela.Segur ere kolpatu eta ihes egitian zela Kortxet erreka hartarat eroria.

Auzapezak mezuturik,jandarmak edo,ordian erraiten zen bezela, hede-xuriak jin ziren lehenik auzapezarekin eta gero,hemendik pirripita,handik tarratata,mediku,eri-zain,eriketari,hilketari,hede-xuri eta aintzina hede-xuria hede-xuriari,zer jendia bildu zen ikusketa jin zirenekin.

Hede-xuriak ari ziren hau ikus,hori hunki,hari beha,bide eta bidexkak harrixkolaz harrixkola,sasu onduak,sasia bera elhorriz elhorri eta zoko guzien ikertzen;Kortxeten gorputzetik eta lehenik Ibarla-Bordako etxe izkinaraino,gero sartzeko ateraino negur eta negur,alde guzietarik alde guzietarat hilaren eta etxiaren potretak tira eta tira.Estali bat ezarri zuten Kortxeten gorputzaren gainian,gordetzeko.

Ibarla-Bordan bazterrak ixilik zauden;xakurrak ere ez ziren ageri. Lehen bai lehen egin behar zirenak egin eta,hede-xuriak elgarretaratu ziren; aintzindari batek zonbeit hitz erran eta,batzu alde batetik,bertzeak bertzetik, Ibarla-Bordaren ingurian jarri ziren.Aintzindariak,gerrian zien larruzko sakelatik tirua eskian hartu eta ondotik zitien lagunetarik bati keinu egin zion atian jo zezan.Pan!Pan!Pan!! Jendia ixilik zagola! Xo ?!?!?!Deus ez ageri ?! Berriz ere eta berriz ere ,gero eta finkiago jo,oihu eginez:"Legiaren izenian

NORK HIL ZIEN " KORTXET " ?????????

idekazie $$!!??!!" eta beti denak ixilik...Xo haatik $?!?!?! Pin Plan !!
Selauruko leiho ttipia ideki eta hartan agertu zen.....??????.....Maria-Motela!
Iletarik ageri zien ohetik heldu zela eta sorbaldetarik,buluzia zela;hainbertze
jende ikusi zielarik,begi tzarra egin zien hede-xurier,zerbeit marmarikatu eta
barnerat juan zen.Usaian baino motelago ote zen gure Maria zaharra ?,motelagotze
batzu hatxemaiten baitzitien.Joitiaren bortxaz,azkenian,atia idekarazi zioten,
nahiz ez zen gakoz,bainan Maria-Motela bakarrik bazen eta buluzia,utzi zioten
puxka bat bederen beztitzeko astia.Hede-xuri andana bat sartu zen ordian
Ibarla-Bordan,barne guziak ikertu zituzten eta bertze nehor nehor ez zuten
ikusi.Maria ereman zuten hilaren aintzinerat;ezagutzen ziela eta nigarrez
orruaz hasi zen.Ageri zen ba Kortxet eta Maria-Motela familia berekuak zirela;
ez zen lehen familia erraiten etxe berian,bertziak kanpo,egoiten ziren lau edo
bortz laguneri,orai bezela;lehen,familia ziren odol beretik xorta bat bederen
zuten guziak eta Jesus Gure Jaunak nigarrak egin baitzitien Jerusalemetarrak,
oilo beraren xituak bezela bere gerizaperat ezin bilduz,Maria-Motela ere
xito-ama gisa ari zen nigarrez Ibarla-Bordatarren familiak Ibarla-Bordaren
hegal zabalen petik,Kortxet,halako xitua betikotz galtzen zielakotz.

Hilaren gorputza altxatu zuten herriko etxerat eta Maria-Motela
hede-xuriek berekin ereman kofesatzerat.Hemen,haurren gatik,ez dauzkitzieztet
denak erraiten ahal,bainan aise sinhetsi zuten hede-xuriek Kortxet ez ziela
Maria-Motelak hila.Gaizo Maria-Motela!!Izigarrikeriak ez zion egarria kendu,
bainan buria arrunt nahasi ; hede-xuriek ekarri zioten pinta bat arno edan zezan
etxian bezela,bainan edan eta edan eta nihundik ezin orhoit nor zien etxian
bezperan.Alta,Ibarla-Bordako parrian pasatu ziren guziek erraiten zuten segur
zirela Ibarla-Bordan bazela ilhuntxian ere,beti bezela,jende frango.

Hain xuxen astelehen goizian Ibarla-Borda berriz egoilierrez betia
zen.Juramentuka ari ziren denak iragan aste guzian kanpuan zirela eta hede-
xuriek galdegin zoin ziren etxetik azkenik juanak,berriz ere denak
juramentuka hasi ziren denak batian juanak zirela Azkonalarreraino eta
gibeleratekuan,berriz han berian elgarretaratzeko hitzartiak.Bixtan da
lekukuak ere bazituztela eginak.Maria-Motelak uste ukan zien haren gain nahi
zutela Kortxeten-hiltzia ezarri,buru undarra galdu zien eta oihuka hasi zen
hede-xurieri,bertziak erakutsiz,gezurtiak zirela eta.."Ago ixilik,hi,gero!!!!
zerrama zaharra!!!!!zorriz bete zikina!!!!!!ustela!!!!!sarri tripak kanpuan
ditun.!!" ....arizan ziren arizan zoinek bertzeari huia hede-xuriak.

Hede-xuriek egin zuten beharbada Maria-Motelaren bertze haur
zonbeiten andana zutela jendek han ikusia bezperaguan eta egin beharko zutela
Maria-Motelaren ondoko guzien itzulia.Itzulia ez zuten egundaino bururatu,
baitzakiten Ibarla-Bordako"familian" sudurra sobera sartzen dienak ,frangotan
azken urtxintxak eginak ditiela.

Guillamu BAZKAZAN

Jean Pierre Fratxeta

Beharrak aharrak

IRATCHET Jean Pierre

BUGLOSE

40.990 St Paul lès Dax

Arnegin, laminen denboran

Arnegin, laminen denboran

Beharrak ahaleak

ARNEGIN,LAMINEN DENBORAN

ARNEGI Arnegi zen oraino;ez zen paristartua ez eta donibanetua ere.Arnegin baziren nihun eta Donazaharren ere ez ziren jende-mota,bizi-molde eta gertakariak.Arnegiko laminek berek bazituzten bertze nihuneko laminek ez bezalako haztura eta ~~eta~~ egitateak.Zerbeit berri haundi jakiten zutelarik, eta denak jakiten omen zituzten (errana eta sinestea zen etxe bakotxean bazela,gau eta egun,lamin bat barrandari) ondoko lehen gau-erditan Xintximurrun ziren,denak,eta bazela zonbeit!!Handik egiten zituzten,hiru orenez,gertakariaren araberako harramantzak:gertakari hirsa balinbazen, gatu zaharrak otsaileko ezin-egonetan bezalako nigar-marruma beltzak , gertakari irri-egingarria bazen,Luzaideraino ageri ziren.heien karkailak.

Horiek hola,kotsu haundia zuen sukar tzar bat erabili zen,negu hartan, Garazin.Arnegin berean hamahiru hil izan ziren.Laminak hasiak ziren, larunbat aratsetan,beren nigarren egiten,jendea otoitzean ari zela. Sukarrak ereman zituen,bertzeak bertze,Xixtroeneko senhar-emazteak.Gaixo Xixtro!!Saski-egile ona zen,herriko mutilgoa ere egiten zuen eta jendek maite zuten.Haur bat zuten bakarrik Xixtroenean,berantean ukana eta ez arras bertze haurrak bezalakoa,Pelo.Ez zen ez jendek erraiten zuten bezain mentsa,bainan,hola,ergel aire bat,zentzua emeki heldu.Eginen zelakoan, Jaun erretorak sar-arazia zuen erdi ikasle erdi mutil Baionako Kaputxinen etxean,Arnegin zer nahi biltzen zuen fraide eske egileari esker.Min haundia zuten hori Xixtroeneko senhar-emaztek beren bihotzetan.Halako mutiko gazte xarmanta zen,Pelo,bainan zerbeit eskas eta hogoi urtetan goiti ari.Beharrik,eguerdietan bederen,ez ziren bakarrik,salda emaiten baitzuten Pedrito ,mendian,urrun,bizi zen bide-zain (kantonier) gazteari. Peloren adin bertsukoa zen Pedrito eta berena bezala maite zuten.

Xixtro hil zuen sukarrak hil zuen guarda gazte bat ere,emaztea,Maagno, Madalendarra zuena.Eta ez baitzen orduan ere bulego haundi horietan nehor bihotzdunik,alharguntsa gazteak behar ukan zuen lehen bai lehen bere bizitegia guarda berriari utzi.Norat joan bere hemezortzi urteko alaba Bittorinekin?Bertze zerbeit hatxeman artio bederen,Xixtroenerat joan zen bizitzerat.

"Ho!Ho!Pedrito!!"Mihi gaixtoko jeloskorrak baziren orduan Arnegin;ez ziren dolu-minaz ere urrikari eta nahaskeriak ibili zituzten Pedritok ~~bere~~ bere salda eguerdietan berriz ere Xixtroenean hartzen zuelakotz. Ez dut erraiten Pedrito eta Bittorine ez zirela elgarri ohartu ere;ez dut erraiten ez ziotela ama-alabek,eguerdi batzuez,indarkako esku-ukaldi bat edo bertze galdegiten ,bainan ez erran gaineratekorik.Bittorine nexkato garbia zen,beti etxean egona zena,amarekin josten,jateko egiten,lisatzen eta emazte-lan guziak ikasiak zituena;hortako ziren bada Bittorinez jelos.

Eguerdi batez Pedrito eta Bittorinek saski-egilearen gaztena-egurtegi zaharra hustu zuten,Maagnok lapinak ezarri behar zituela.Lapinak!!!Debruaren mutil izan ziren lapinak!!Ez zirena egun batez lapin hetarik biga beren tegitik ~~e~~skapatu eta zoko guzietan zilo egiten arizan.Zilo batean eltze estali bat iduri berria ezarri zuten agerian.Zer zen hura funtsik gabe altxatu zuen Bittorinek eta"Oi!Oi!" amari egin zuen alimaleko oihua; iziturik,Maagno joan zitzaion lasterka eta harek ere "Oi!Oi!";eltze haundi bat zen dena luis urrhez betea.Aratsean,denak hetsirik,"Oi!Oi!" eta "Oi!Oi!" mila bederatzi ehun eta laue~~tan~~ hogoi'ta zazpi luis kondatu zituzten ama-alabek.

"Oixu!!Ni baino aiseago ezkonduko xira orai" erran zion Maagnok Bittorini,bainan hori aditu orduko...frixt ! !....brixt !!bi lamin atera ziren Xixtroenetik;Maagno gaizoak ahantzia zuen ez ~~ze~~la deusen jabe Xixtroenean eta Xixtrok seme bat bazuela.Arats hartan berean,gauerditan, laminak Xintximurrun ziren.Arnegitar zaharrenen orhoitean,ez ziren

egundaino hoin kexu ibili:erasia,erausia,oihu,marruma,uhuri,kurrinka, hixtu,marraka eta orro mota guziak,zer musika!!Artetan,kolpez,boum!! denak ixiltzen ziren eta iduri bertze mundutik heldu zen botz lazgarri batek egiten zuen:Peloriiiiii !!"hiruetan,santusa bezala.

Bainan Arnegin baziren orduan bi Pelo.Zoini zer egiteko ari ote ziren laminak?Mihi luzek pesta zuten.Guti orhoitu ziren hirugarren Peloz,Pelo Xixtroz.Jakin zazue,gau hartan,ohean bi itzuli egin zituela Maagnok ezin lokartuz.Bittorine sahetsean zuen,iziturik harat joana.Zer karkulak ibili zituzten.Biharamunean,goizean goizik,Maagno izan zen nunbeit.Denen artetik,egundaino Xixtroenean egin zen saldarik hoberena jan zuen Pedratok eta harek egina zela erraitean Bittorine gorritu zitzaion. To ?!?!!?Aratsean,gau-erditan,laminak Xintximurrun :"Pelorena!Pelorena! Pelorena!"erraiten zutela.

Biharamunean,karrosa eder bat heldu da Arnegiren erdirat eta hartarik jausten,dena irri eta jauzi.....nor zen orhoit?...Pelo Ergela, Pelo Xixtro !?!?!? Eta aratsean laminak oihuka:"Pelori Pelorena!Pelori Pelorena!Pelori Pelorena!"hiru orenez;jendea kexatzen hasi zen.Denak Xixtroeneaz mintzo alabainan,argitu orduko denak Xixtroenerat beha.Zoinbeitek erran zuten Xixtroneko gibeleko ganbaran bazela gau guzian alimaleko argia eta xuxen han ziren luisak.Pelo loriatua zabilan Bittorinen ondotik.Pedritori kopeta tzarra egin eta muthur egon zitzaion haatik eta nola bazkari denbora guzia.....

Aratsean,berant,Pelo etzan eta,Maagno eta Bittorine joan ziren herriko apezari denen erraitera.Harek,argi eta garbi,erran zioten hautatu behar zutela:edo Xixtroenetik joaitea,Pelo eta haren eltzea utzirik ahaide hurbilenen gain edo.... edo...Bittorinek behar zuela Pelorekin ezkondu.Gaixo Bittorine!!!Zer farrastak zain odoletan!Iduri zitzaion alde guzietarik joka ari zitzaizkola eta ez zuela etsairik baizik eta ama ari eta ari,ez zirela erreginak berak ere beti nahi bezala ezkontzen...urrun behatu behar zela....bien artean heziko zutela.. .....erakutsiko zakola gizon bat nola biltzen eta ibiltzen zen....eta.. eta.....Jaun erretorak ere Pelo haur bat zela,bil errexa.....eta..... onduko zela oraino eta.....eta.....Hamekak et'erdiak.....beharbada jadanik Xixtroenea laminez betea...azkenean,gauerdi laurden gutitan, foltsua sutan,begiak nigarrez itsutuak,ahoa agortua,eskuak izerditan, zain guziak ikaran,krask!!Bittorinek eman zuen bere baia azken hatsa eman balu bezala,laminak ixilik egon ziren,eltzea ontsa estalia zen.

Beharrak aharrak

Jean Uhalde

DATE

LEÇONS

Bziràlean irriç igandean nigarrez
7 jean Ithalde

Ch Caro par St Jean Pied de Port
'Hiru laido'

DEVOIRS

DATE

LEÇONS

DEVOIRS

Jean Uhalde

Hiru laido

Azkeneko gerla handiaren aintzinetoan, larrazkeneko egun ~~eder~~ eder bat zen, igande goiza. Hiru ihizlari: Gilen, Manuel Etxeste be eiherazaina, guan ziren erbi ihizira. Hamarak aireko helduziren baita Bazenabarreko herri eder baten bazterera

Orduko ainitz hurats eginik bazuten, hein bat akitzeak ere eta herabe bat bizkin berriz aldapa-edo lotzeko denbora daudelarik, horra nun agertzen den herrirat buruz Gilen delakoaren auzoko mutiko bat aiphatu berri dugun mutil zagoena. Etzen nola nahiko putikoa, hogeita hiru urthe, bederatzi zehe luze, sorbaldak largo eta gorphutza Iratiko izaia bat bezain sendo.

— Eo! yainkoak esker duela ~~dio~~ Gilenek ~~ji~~ Hortzet heldu den hori ene herritarra baita eta geihago dena auzoa, har bagindeza karga guzien eremateko, besuak libro gindizkek tiruetan ~~eg~~ shuxen egortzeko.
Etz zuten erbien kargarik bainan baskari on batengatik

Hurbiltzearekin axeriak belea bezain ederki erazebitu ~~zuten~~ eta flatatu zuten mutikoa. (Emandezagun Anton zuela izena.) Ibiliaren bortxaz zangoak ethen ducak zituztela eta hola ko zernahi karrinka — Gero elgarrekin ederki baskalduko gituk eta libro iganen baiz — Akitzik bolin bazirezte, yar hortzet eta gero yuan etzeraat! Ni, naudiak egovia nu mezarat eta gero yuan behar dut ahoztegina bihar goizeko pikotza batez berka. Eturloeneko

bidearen largatzera yuaiteko! Baiz eta ezetz, lehenik balakuz, gero larderiaz, ezen batek mehatxatu ere eguen tiro bat emanen ziola Gisa hortan Simon Cirenekoaren gisa borrokatua izan zen obedizera. Hain zen azkarra num hiruak zanpateko baizituen lihoa bezala Bainan harrna debru hek eskuetan zituzteno nor atrebi indararen kontra?

Azkenean deliberatzen du bainan marmarika gorriaren bonetaren azpitik pehatko gaizto bat egin ez — Ah zerikiz-lariak ziek, ez badezie gehiagoko kuraierik, gizlen bezalako dfer tinante haundiak eta bestalde, nitxie goiz huntako ihiziak?

Hiruetarik biek ez bazuten ere ederraren eg ikusiaren ascotarik, Estebe, muthiko pretu bat baitzen, gaizki hartu zuen bere lagunen egitate ilhuna. Segur azken aldia zuela erranik Badoazi beraz han harat. Gaztain zuhaitz bat iragaitean aurkhitzen dituzte hiru asto Heietarik bi atrebituenak zaluzko ihesari emaiten dira zer gerthatzere. Halere bat eskuratzen dute: asto gris bat, gaztainaz astea, ahuntz apüre bat zurezko usteü batean Manuelek, laster korda pat lothurik usteian beste puntan emaiten dio Antoni aintzinetik tira dezaon eta bera gainean emaiten. ?artzen.

Bide hertsi bat atzemanik zeiharka joan ziren eta gisa hortan behar zuten erreka zar batean iragan Errekaren bi bazterretan lohi haundi bat.

Astoa lotsatzen zaiote, ukho egiten, nahi lucke! Batek thira, bestiak pusa, bestek aihu eta Manuelek (bizpahiru zaiten zonbaitek) egitendu beretarik okasioneaz balia. Folkikiño sakelatik ganibeta harturik korda pikatzen dio: Talapast! gure Anton gaizoa lohiaren erdian da zabal zabala! Jakin zazu ez zela irri etsatsik, salbu Antonek. Alxatu zen ahal bezala, oerri mainatu bat iduri, arropa ederrak dena lohi. Baliatu zitzaion Manueli ~~joka~~ ez baitzuen ikusi zer jokoa eginduzion nik uste bere astoarekin itzulapurdika zuan beharko zuen errekari beheiti. Halere eroatia alde bat gaitz egin zion haldarearen iragaiteko. Manuel aldiz bere balentriaz soratuadago. eta gogoari eman ere gabe Suiarekin josteta ari dela eta azkenian pegarra belhetzen ahaldela denborarik galdu gabe beste urdekeria bat ezarzen du erakitzen.

Errekatik ahal bezala atheratik ziren aintzina. Eguerdi aireko heldu ziren haritz baten pera. Baigurako mendiari parez par, beherako zelaieri so loriatuk egon ondoan baskaldu ziren lanak. Baskal ondoko deserta alimaleko pizkorsea erbota bat atera ondoan, lau parte egiten du biga laguner emaiten bat beretzat eta laugarren partea antxiek beharra. gafla! bere xakurrari.

Labela lehertzeko hurnean hasten dira irriz. Anton ioeil geldituzen bere laidoaren korapiloa ezin iretsiz — Zaigte ~~ik~~ iaztun bat ez duzie deus galduko — bere baithan egiten zuelarik

Ihiglariak hasi ziren beren ihiziko balentziez espantuka

4

Ezetelek erraiten diote abia dela heien egitate itsutiez eta abiatzen da etxerat—Araiz mutil horrek ezdik nehori erranen zer gerthatu zaion egun, bestenez ez giteik zakurentzat ere on izanen! Anton aldiz begi hetz artean ibili zaioten, Uste izan guten etxerat yuan zela, bainan etzen hartarik ari berehala begurik.

Bet-betan ikaragarriko harri erauskia hasten zaiote ez zeuetik bainan Antonek goitiocagotik egorria bere indar guziez eta nolako firurikan prasatu zaiz koten beharien ondik.

— Atze! mutikua zer da gosteta hau? Ziting tenak oro han utzirik partidu ziren hain zaku mun otso batek ere ez baitzituen gibeletik arrapatuko Antonek hartu zituen harmak eta kartucha guziak bestogainka botaturik. Bere baitan egiten zuela ezustela kartucha beharrik herbi atzemaitteko, hain zaku zirenaz geroz lasterka. Astoari yan arazi ziozkan ogi bokera kinak eranez:

—zakurrak beharbaziuen pastiza, hik ere ogia bederen merezi duk. Harmak ezarri zituen kartuchadazintekin astoaren lepoan estekaturik eta egorri herrirat bururuz karrikan prasatzean jandarmeak yaketa gitxaizkon eta harmak eskendu.

Beren harmen eskuratzeko ikiz larriek, bikaramenean beharizatazuten, ahalgez hurtuak, beren nahigabea kondatu, erdizkasse bederen.

Orzi ralean irriz, Igandean nigarrez.

Baketsu

Izen orde honi hartua dut, ene lagun Laterö;
orai hiladena makeruzki.

Hona ene deitura eta adrezak

Bernadette Borda
Maison "Oyhenartia"
64120 - Oregue.

Bernadette Borda

Egun batez, joan nintzen herriko gizon eta lagun baten etxerat. eta Galdegin nagon, istorio baten neri kundatzea. Laminez elhetu zautan Denbora hartan herriko mutil zen. Laminak bizizien oihan baten soko. sokoan, baizezilo batian. Egunean gorderik zauden ta gauean laneanari. Kokinak ziren bainan ez gaiztoak. Maite zuten jendearen atakatzea.

Hargia zenan didiratzen zuen. Ter Lamin, palak ta aitzurak espaldaren gainean, herroz-horo, joaiten ziren hilerirat. Kantua espainetan heldu ziren leku batarat. et laitasunean hazi ziren aitzurtzen azkarki. elheta bat xilatu ta, jeus! - Heien aitatxik gezur bat erran zakoten ate? - Ez, amar ehiz gero, gaztenaren aitzurak hunki zuen tonba baten zura. Akituak ziren eta heien lihotzetik irri ahul bat jalgi zen. Kontent ziren. Tonbaren zabaltzerat zoazin urhatzak entzun zutelarik Beren behari fina ez zen tranpatie ezen filé ikusi zuten ama ta alaba bat eskuz eskuz otoitzian ari, hilherriaren itzulian. Denak punpean gordatu ziren Kurutze baten gibelean ta gelditu isil isilak. Lesckak ez zuen ikusia silba eta haren barnerat erori zen eta oihuka hotarik jalgi: "Oi, zer izitzea jduri zaut debrua ikusi dutala, ama nahi duzia zoan ikusterat?" - "Ez nescka, hau nerekin otoitzean artzerat, hemengo arimek berhar bitute biziki!" Laminek, dena ikusi ta entzun zuten. "Orai bi emazte horiek, ikusi dutena apezari ta beste jender, erranen dute!". Nahi zuten halere beren segretua gordetu. Isil isila orai, joan ziren.

Etargi zirinta zenian, herriko elizan messa bat, apezak eman zaen debruaren aizatzeko. Eta egun gunzian entzun ginduen, zeinak joiten azkarki. Hilherriian ez zen jeus ageri ezen laminek, Rukutu zuten beren zilba, igoiz kura tonbaren gainerat. Aherak galdegin ik, gizon gazte batzu bildu ziren eta gauen beharko zuten, hilherriari kazu egin

behar zuten. Etxeko jauzi zelarik, gizonak ta amaren alaba
jarri zizon, portalearen ainhzinean. Egauerdi jo zuen eliza ko zeinuak
bere zeinutegian. Orduan, eskereko murvaren gainetik, laminak
pasatu ziren, isilka. Guarden dako ez zen nehor sartzen, nehor jelgitzen.
Beriz, lurra tonbaren gainetik jalgi zuten eta ateratu silbaren barnetik
urhena ta gauza ederrak. Urhena hori norena zen nehorek ez daki. Laminek
salbu. Lanain bakotxak nahi zuen bere partea, eta ahala hazten da. Azkenik
handi hori guarden beharrietarat helzen da eta heiek igortzen dute
neskatoa leku hortarat. Laminak iziturik, neskatxa harrapatu dute
zango-eskuak, estekaturik, soku batean ezartzen. Eta igan ziren
galdi sela baten gainerat bere gauzekin eta neskatxarekin. Harat heldutza
herriko mutilari, han baitzen orduan, eran zuten "Ez joan, laitheriat,
sorginez bethea dira, kasu egizu!" Orduan herriko mutila, zangoak
lepoan hartuik joan zen apezaren ikustera, ezen, berak dala diolaz,
ikusi du dena. Laminetarik bat, gaztena, partitu zen herriko etxerat
prepatua bere segretuaren libratzerat ezen ezin atzikia zen. Nahi zuen
elhetu, bainan bere mihi ez zen mugitzen, Ez zuen deus erran.
Guardiek, gizon ttipi hori lazterka mendiat, haren gibelatik abiatu zien
bainan hura nola hau airatzen zela. Etxma, negar ta negar bere
etchean, plazerez bete zen, bere alaba ikusi zuelarik, sukhaldian
sartzen. "Zer gertatu zaun, adiskidea, erran, otoi?". Jeus ez zuen
eraiten ahal, mutua zen sujet horen gainan, bainan beste zerbaitez
mintzatzen ahal zen: Ekhiaz, eurriaz,..... sustut ez segretuaz.
Etxatz batez, bi lamin, jin zizen neskatoaren etxerat, zer ari zen jaki-
-terat. Zuhi handi bat hartu auzo batean, Jaunbarako leihorat heldu zien
isilik, behare. "Pom, Pom!". Neskatxak, zabaltzen du atea. Etxe
dautzian Jaunbaran sartu zizen. Zertako? nehork ez du sekulan jakinen
Gilarak, bere ahu samina igortzean, neskak iatzartü zen, goiz orotan
bezala ta bere eguna Jainkoari eskaini zian. Gero oihanari buruz

partitü zen. Eta ez zen sekulan berri bere etxerat itzuli. Jendek erran
zuten han egon zela zehi; garbitzen eta arropen ikusten. Lanean ari
zen, Plazarat jiteko dretchorik ez, han egon behar, ezen laminek ez
zuten nahi neska eder hori, mutu izan zadin. Orai, neska
hori bizi da, ez, bai? nehorek ez daki. Misterio handia izan zen
herrian egun heietan. Handik hunat, jendea goizik beren etxean
sartu ziren, gauaz, laminez beldurez. Egun, laminak hilak dira
eta hein tokia, turista zahalduada, udan.

Nehorek ez du yakinen zer gertatu zen aratz beltz hartan. Denek
erran duk beren segretua, tonbarat: Neskak bere altik eta laminek
beren eskualdetik, salbu, ene lagun xaharrak, oinoitzapen beltz
batzu baitira haren dako, eta ez aise arhantziak. Nik nere aldetik
ez dut aise sinetzi gauza hori; bainan ikusi hanu. Jo egin dut
kanporat, leihotik, eta ikusi nuen ekhia gordea zela. Erran nakon
ez adiarik, eta utzi nuen bere pentsaketetan. Bidea ene etxeari
luzuz jauzten zen. Ene buruan ikusten dut gizon xahar bat, bati
bera, igande edo asteazken, bainan alegera eta Jainkoak atsik
beza luzaz bizi.

Baketxu

Josephine Moreres

Gaizki bildua seculan ez baliatzien

" I R I N A"

Par : Mademoiselle Jospéhine MOLERES
Bas quartier
64700 HENDAYE

Avec la collaboration de :

Maurice OLPHE-GALLIARD
"Les Mouettes"
64700 HENDAYE

Josephine Roberts

I R I N A

Nahiz ez ziren den gutieneko iduriak, bibixiak ziren bi anai gazteak.

Bi mutikoek amets bera zuten bihotz barne barnean : zaldi batez jabetzea. Osaba batek erakutsia zioten zaldika eta aita beren alde emateko agintzen zioten alimalien artatzaile eginen zirela osoki.

Burrasoen etxeak bazituen zenbeit golde lur alferik, denboraz josteta ber berarentzat larre utziak, bidexka pollit batez inguratuak. Soro bat ere zaldi baten doiakoa. Hitz batez errateko mutiko maitagarriek bazuten frogarik aski beren aita berenganatzeko. ?

? Handik laixter beraz, aita bere bi seme-ekin jo zuten Helzako merkaturat gogoan ongi arturik ez zutela esku hutsik itzuli behar.

Ganix, makiñun arditak bere ganatu zuen erdaldun erosle erabea. Entzun zuen delako deia eta ihardetsi zuen :

- Huna zuek behar duzuen Kabala. Adin pixkateko behorra, beraz ezia, goxoa, lehen begi golpetik maitatzen dena.
- Nundik duzu ? galdegin zion malezirik gabeko erosleak.
- Ez izan kuriosegi ihardetsi zion makiñunak. Finkatzen ahal dutana da odola eskualduna duela nahiz ez den nere zalditegian sortua.
- Nola ezagutzen ahal dā eskualduna dela ?
- Galoxatik.
- Zato, huna nun duzun delako behor eskualduna.

(Agertu orduko bi bibixiak oihu beraz agurtu zuten beren ametsako zaldia. Hor zuten esku pean jostagailu pare gabea.

.../...

Ganix azeri zaharrak, ordu danik bazakien eroslea bere zuela, aita bihotzdunak bi mutikoen gogoa ez zuela goibeldu nahiko.

- Zenbat galdetzen duzu ? dio aitak.

- Hau bezalakorik ez duzu merkatu guzian. Ez dut uzten ahal mila liberen azpitik.

- Mila libera ? erdi prezioan hamarren erdian hauta dezaket bat.

- Egia, gizona, milaren azpitik nererik ez dutala.

- Hanbat gaixto dio erosleak, bertze aldi bat artio.

- Bibixien bihotz mina ezin zuen jasan aita gaixoak, bi mutikoak alde bakotxatik phereka eta lausengu alimaliari lotuak zien ezin urrunduz.

- Aitak, orduan, makifunari :

Bizkar ezurra ongi xorrotxa du, errana den bezala, larrutik hurbil du ezurra. Tori azken emaitza nahi dituzu zortzi ehun ?

- Ez dezaket, galtzer bainitake. Urrikituko zautu, jauna, hunen huztea, zure haurren bihotz mina beti gogoratuko baitzaitzu.

- Tori beraz zure mila liberak. Zure ganatu nauzu. Ez dut urrikitan bizi nahi. Nere mutikoen atseginak ordainduko nau zure ganik ukan dutan larrutzea.

Zer zorionezko eguna bere jabe berrien etxerat heldu zelarik behor gaixoa. Mutikoek berritua zuten azpikoa. Belar idor eta zaldari. Eta apaintzeko, orraze eta Kabertru berriturik han ziren.

Ezku zartak eta irriak ixildu ziren gogo batek agorturik. Nola behar zuten deitu zamari berria ?

Elgar harturik I R I N A eman zioten izena.

Azeri zaharrak erran guziak finkatu zituen Irinak : goxo, maitagarri ezin gehiago, bainan jaunariari ez lotzen. Ahultzen egunatik egunerat. Ikustekoa zen etxekoen odal txarra, hanbertze taraino nun aitak deitu baitzuen artatzaile edo vétérinaire delakoa.

Sendatzaileak hunki eta mila gogoratzen ondotik solas bitxi hauk erran zituen :

- Esperar y mirar.

.../...

Sari ederra bereganatu ondoan urrundu zen delako sendatzailea. Etxekoen gogoa beti ilhun, Irina-ren begi arte unkigarri goxoak nigarraz begiak jartzen zituelarik egunak zoatzin.

Gau batez deusen arrabotsik entzun ez zutelarik Irina amatu zen. Bai, bai, ume bat xoragarria, amaren arrimuan, xutik; lerden eta pixkor.

- Aita, aita, zato, Irinak bere ondoan ezin pollitagoko umea badu !

Aitari gogoratu zitzaizkon makiñunen hitz ustez soroak kanorerik gabeak, baita galoxetik ezagutzen zela alimalien jitea.

Ongi bahaturik, ikusi zuen Irinaren zangoan marka bat español armadakoa izan zitakena.

Izan zitaken ere ahulegi izanez erreformatua zela eta nola jakin zer likutrien ondotik jautzi zen frantses eremurat. Noiz eta nola makiñunak bereganatu aintzin asto ausarta batek bethe zuen nolaspeit Irina gaixoa, dena den mando eder baten ama egin zen gau artan.

Irinari jateko gogoa piztu zitzaion. Umea ongi azi zuen. Ikusgari ziren ama umeak, pentzean. Bainan mando pixkorrari zangoak zalutuzitzaizkion eta etxeko eremuak ertsi zituen naiz amaren milika aldiak luzaz on artzen zituen. Nola ezi mando bat ? dena uztar eta jokutri.

Azkenian, zer nahi ikusi ondoan, bihotz min andienarekin, bi anaien nigar guzien gainetik deliberatu zuten etxekoek Heletako merkaturat eremaitea. Huna beraz eroslea saltzaile.

Ganix hurbildu zitzaion :

- Zu eman ? Behorrari ezin laketarazi ?
- Ez, ez, gaur, saltzaile naiz. Behorrak xoragarrizko ume bat emanik emen dut salgai.
- Zer ? Bethea zen ? Astokeri ederra egin dut beraz zuri saltzea.
- Ba ditake. Eta guk ederrak ikusi ditugu ekartze txarra bai zuen.
- Astokeri ederra ! zion beti makiñunak lurra ostikatuz.

.../...

- Zertako astokeri hori, eri zelako ?
- Ez, ez, bethea zelako !
- Eta zer da, ume hori ?
- Mandoa !
- Mandoa ? Zenbat nahi duzu mando huntaz ?
- Bi mila libera. Ez duzu bertze bat holakorik merkatu guzian.
- Diou biban ! zure galbeak kanorerik ez du. Erdi prezioan eman eta berhorra urririk duzu.
- Bi mila azpiz galdun nauzu. Begira nola inguratua den nere mando ederra. Ez bazare artzaile, hamar galdetzaile laixter baditut.
- Huna mila eta bortz ehun.
- Bi mila ! Tori hurbiltzen hari zauku Koxe makiñuna. Nahi duzu hartzen duela ?
- Diou biban ! hortako hobea da madarikatua !
- Orduan ?
- Artzaile naiz, tori mila libera.
- Barkatu, bi mila, Ganix.
- Miletan ere behorra urririk duzula.
- Aski, aski, trenka dezagun laixter edo Koxe deitzendut.
- Tori, tori, zure mi milak.

Emeki, emeki, daldara errabiatsu batekin kondatuz bi milak, saltzaileari eman ondoan, mando lerden xoragarri-artaz jabetu zen azeri zaharra.

Bi anai bibitxiak, tratu labur bezin harrigarri hunen lekuko ixilak, aitari so egon ziren, begi batetik nigar eta bertzetik irri ikusiz :

EBASLEA EBATSIA.

--*-*-*-*-*-*-*-*-*-*-*-*

[Mayi] Elizagarai

Xabarrak Berri

11/- Elitzagarre

Harparren

'Amaalabak et lamine'

I

Elizagarai

Ama-alabak et lamiña

Behin bizi zinen laborari etxe on batean, senhar emazte batzu: Beñat eta Katixa, bere alaba Paskalina-rekin.

Ama alabak, bizitzeko langileak ziren, bainan Beñat-ek, ez zakoten sekulan pilik emailen.

Egun batez, Katixak erran zion bere alabari:
« Mihiseak eta xukhadarrak arras higatuak ditiun, aitari behar dinat heien berritzeko saria galdatu »

Erran bezala egin zuen
Paskalinak galdatu zion.
« Eman dautzua zerbait?
— Ez eta -andit erdi bat ere. Ez dinat ikhusi hilabeteko gizon zikoitzik. Belhi bil eta bil, sekulan sos bat langatu gabe, etxeko behar ordu entzat ere. Ez bainitu ene orlo eta arroltzen sariak, ez zaldinat zer egin behar nukeen. Zerbait ikhusten dinat ene senhar horrekin.
— Ba, denetan bada zerbait, -denak har, ez du bertze estakuru handirik.
— Bai! aski! banaki nun gordea duen bere moltsa gothor hunetan, jakinzan gogotik egin nezakeela xiniko bat, batere -arima kolpatu gabe. Bainan untsa gordea din. Miatuak ditinak, etxeko zokho mokho guziak, deusere kausitu gabe. Ez zionat hasmarik, nun nila sorgin gordea duen.
— Behar ginuke barrandatu
— Egia, bainan nola?

— Zaude,... Iguerditan erran du, bihar joan behar dela merkhaturat, idi gizonen saltzerat eta berant sarthuko dela, Martin Urrutiorekin afaldu behar delakotz Auxotean. Bistan da etxeen saltzean xuxen joanen dela, uste gu lo ganden idi sariaren toki suguzean ezartzerat. Nik barrandatuko dut, eta hola jakinen dugu haren gordegailuaren berri »

Biharamunean, Pastkalinak erran zuen amari « Denak joan dira nik erran bezala: Gau erdi irian sarthu zen aita, batere arrabotsik egin gabe eta segidan igan zen gibeleko ezkaratzerat. Diduan, oinetako eta zango puntten gainean, jautsi naiz sukalderat eta hango gako sülhatik ikusi dut barroki ondoan den eskaler azpi illum hortan sartzen. Beraz, hor duke bere gorde lekua

— Eta gau, afal ondoan, Kontseiluko biltzarrea baitu, izanen dium astia gure jokoaren gostuan egiteko »

Beñat atheratu ondoan, joan ziren ama alabak erran tokiaat.

« Hemen sartzen ikhusi dut...

— Eta nagerü dea denik?

— Zaude, ez naina... bainan bada murruan ozka bat eta han untzi bat; eltze zahar bat da untsa betia, hortan duke segur bere ontasuna.

— Ikharran sukalderat, han, gostuanago ariko gaitun.

— Arras pisua da

III

– Zaran hemen, mahain gainean –
– Beha ama, zombat paper! gain gainean
ahzo merkatûtik ekarriak, elgarri lotuak.
– Ukin hoiuek hunkitu gabe
– Eta zolan urheak, aise da eltzea pizua
– Hoiuek ere ez hunki; baitaki seuxen zombat
ditiuen – Azpi azpitik bi paper hartzen dutinat.
Ahantzia din menturaz zombat zien eta
uste izaiten ahal din gaizki kondatuak zituela.
– Ha! Ha! Ha! ari zirezte biak isilik, Beñaten
moltzari scilho baten eğiten »)

Bèek jautzi batean
« Jesus! nor zira zu?
– Ni, Xuxito lamina
– Nundik sarthu zira?
– Khe bidetik, gu laminak, nun nahitik
ibiltzen gira eta asko ikusten eta adizen
dugu. – Andura gizonek gure gain ßmaiten
ditiuzte asko ebaste eta mendekio. Nik errazen
diotet, mais ohoinak berek uste baino
hurbilago dituztela.
– Othoi Xuxito, ez gitzazula salha
– Ikhusiko
– Eta orai, zuk zer nahi zuuke?
– gina nintzan, ene emazte Mariilla, haur
beharretan baita, harentzat sẽngar posi
baten bilha –
– Emanen dautzut hoberenetik. Eta orai
deitzi esne fresko huntarik ere – Horra
nun dituzun, scakhuño hunen barnean
– Milesker! eta ikhus arte!

IV

— Ez adiorik Xuxito, eta bende hauk denak gure artean.
— Ikusiko! ikusiko»
Horiek errana, joan zen farrandan ethorri bidetik.
Katixa eta Pascalina, geldidu ziren arras giñatuak.
— Zer behar dugu egin, horren isiltasunaren aldiesteko? Xahu gitun aitak jakiten badu... erran Pascalina, Xarlesc oihan zeinak ezagutzen baititu laminak, bihar berean joan behar hiz hari buruz.
Pascalina abiatu zen erran bezala - Bidean kausitu zuen Pettan bide garbitzailea.
— Bazabiltza Pascalina?
— Ba eta zu ere ari Pettan?... Hamce duzu zikin aldea, nundik jaliak-dire horiek ere?
— Hauk?... lamina txar horiena dana da
— Ez da errana.
— Ba, ba, arras errana... Borda, etsceatekoan izigarri bero haren ondotik, etzan nintzan Bordaltipiko haitzaren azpian, eta han lokhartu. Iratzartzean, ikhusi zuntan harat hunat batzu bazabiltzala ene inguruan. Laminak ziren.
«. Ergin duzua lo, Pettan?
— Ba, untsa akhitua eta berotua nintzan
— Gaisco Pettan! atsikazu izaria, sobera akhitu eta izerdi gabe.
— Ba, nik uste hortzak zirelakoan izerdi.
— Debru zikinak, nitaz trufatzerat jinak ziretea?

zoaste laster hemendik ez balinba duzue nahi pampa aldi bat ederra.

Orduan, joan zinen, irri karkailaz, haizeak eremaiten dituen hóstoak bezala - Bainan mendekioz, aste huntan bildu saskietan zinen zikin guziak, berduratu daitate - Ez dakizu zer ditzimekoak direen horiek lhere bcarkeria dute gogoan.»

Polas horiek aditu ondoan, Paskalinak segitu zuen bidea, barnea ilhunik.

Horra nun kausitzen duen Xarlesc vihan zena

-cc- Nun zabiltza Paskalina? vihaneau barna

- Zuk beltxi bezala, nik ere artetan nahi dut gozatu hemengo isiltasuna.

- Ez da oihana, zuk uste duzu bezen isila, adixken dire, scorien kantuak, ihizien oihuak, arboletan airearen boz eztia, haizearen orroa---

- Eta laminek irriak

- Ba, hreiek, han daude oihan zolako zilhoetan eta mendi kaskoko leizetan, ez dire gauaz baizik atheratzen.

- Iklusten dituzua artetan.

- Bakhan, arras bakhan -- Haatik, aldi bat ikusi nuen sekulako andana, ilhargi scuritarat dantzan, zangoz burra hunki gabe, lurnak bezen arin, hegoak pherekatzen dituen hostoilak iduri. scoragarriak ziren.

- Gaisotoak direa?

- Ez, onez oneau hoberenak; bainan ni ez hunka, kasu! badakitu mendekatzen.

VI

Aldi batez Mañex Xuhurrek, bere eremuetan zombait harrikatu zituelakotz. Kausitu zuen biharamunean, bere artho landa guzia, errotik atheratua. Bainan berzalde Pampale Bordagaini, saratz batez garbitu zioten belharrez ithoa zuen ogi landa, tiro batez ihil zuelakotz beietarik zombaiten ondotik johan zen otso bat.

– Zer? gau batez holako lanak?

– Ba, bizki handiagokoak ere. Xinhaurriak bezembat ba dira eta behar orduetan elgarretaratzen dira. Oihan zolako ziloetarik eta mendietako leizetarik atheratzen dire mulaka. Bethiko errana da, arats batek egin ditu tela, dorre gorenak, zubi azkarrenak eta ere Donibane garazi'n guratzen duen, gaineko gaztelutik haste "Errobi" bozterreat artino den, harrosi gaitz lura.

– Izagarri da! hainekin hobe da etsai baino, adiskide izaitea ---

– Egia duzu.

– Ezagutzen duzu Xuxito lamina?

– Ba, aintzindarietarik bat da.

– Galde hori egitera dantzut, barda amak eta nik, isilka egin dugun gauza bat aditu eta ikhusi duelakotz. Orai ikaran gaude beldurrez sal gitzan. Zer egin behar dugu Zure iritzi, haren iraiitasunaren ardiesteko?

– Beit'arte on, egin zakozue ezetiki eta gogoan galdeginak eta ez aipha bardako

gertha kari hori. Hola arin, ekhusiko duzu denak untsa joanen direla
– Mileskeri Xarlex, eginen dugu zuk erran bezala. Gero tik, burhaso-ak oherat joan ondoan Paskalina, orratzeläko lan bat eskuan, sukaldean zagon Xuxito, noiz agertuko zen. Heldu zenetan, bethi irri goco batekin errairen zion:
« Hor zirea, Xuxito, Manulla zertan da?
– Untsa, zuk igortzen daizkotzun jateko onen esker-
– zato, zato, gázagaixoa, egun eginak ditut taloak khentzat, oraino bero beroak dire-
– bizik on zaizko --- Errazu, Paskalina, zer da zuk egiten duzun ganza pallit goco hori?
– Oraino ez dezaket erran, bainan yakinen duzu denbora labürik barne »
« Ero, heldu zenetan, Xuxitok izaiten zuen esne, xingarra, talo, ogi urinean bustia
– Gau batez, gin zen hats hantua erranez
« Nun zira, Katixa? Manulla, hauzizaiteko minetan da, XarleX oihan zeinak erran daut holakoetan. arrakasta gaitza zinela, bizikí yakina eta baliosa zinelakotz. Zato othoi laster
– Heldu niz orai berean. Zu, abia zite, ni baino zalhuago baitzira eta ezarrazu berz bat nik eräkitzen »
Katixa agertzearekin Manullak erran zion:
« Zato othoi ene laguntzerat; ez dakizu zer yairatzen dutan.
– Gaixoa, nik ez dezaket laguntza handiak

egin, bainan egin ahal guziak, eginen ditut.
Ez zaitela lotsa, oinaze larrien bydotik
izanen duzu, gaitzeko bozkariora>>.
... Gau haize, es-garri, harin ondotik, azken
izarra zeruan ezeztatzearekin, Katixak ekarri
zion Xuscatori premiu bat ederra. Pasckalinak
Orzatzetan egin estalgiaren barnean iguatuan.
Orduan, Xuscato-k migarra begian, erran
zion:
<< Milesker Katixa, ez diot erran Pasckalina
eta zu zoin onak zaizan zirezten guretzat.
Ordainez, nik zer egin behar dut zuen dako-
— Badakizu gure nahiaren berri.
— Ah! zaude gostuan. Ene ahotik ez da
atherako, zuek nahi ez duzuenik. Lehenago
uz nezake ene mihia moztrat
zakizazu laminek ez dutela behin ere
Kaltetik egin, ez eginen bere ongi egileri>>

Xalbarrak Berri

FSC
MIXTO
FSC® C001636